

Hesikasmoa

Eliza ekialdetarreko barne-otoitz mistikoaren motetako baten tradizioa, XIV. mendean bereziki garatu zena eta batez ere Athos mendian kokatua.

Gorputzeko jarrerari eta arnasa kontrolatzeari garrantzi berezia ematen dio, *gogartea eta *otoitza egitean; Jesusen izena behin eta berriro errepikatuz, "jainkozko argia" ikustera iritsi nahi dute otoitz-egileek. Antzaldatu zen Jesus inguratu omen zuen argi berberatzat hartzen dute argi hori, eta funtsean horixe da hesikastentzat zeruko dohatsutasunaren muina.

Hesikasmoak badu *yogarekin kidesunak.

Ik. Arnas kontrolatua; Doha(tsu)tasuna.

Heterodoxia

Ortodoxiaren aurkakoa da. Edozein erlijio-erakundetan, *dogma eta irakatsi ofizialestatik edo sineste agizkotik, aldentzen den *irakasbidea edo eritzia da heterodoxia.

Ik. Ortodoxia; Dogma; Heresia.

Hierarkia

Grezieratik dator hitza, eta eskumen edo aginte sakratua adierazten du.

Bereziki zera esan nahi du: edozein erlijio-elkarteko kargudun "sakratuen" korporazioa, goitik behera kargu mailakatutan eratuta dagoena, edo ordena ezberdinetan berezita.

Honetatik igaro da hitza mundu zibilera ere, *boterearen partaidetza mailakatua adierazteko.

Edozein erlijioak, bere *irakasbide eta *erlijiozko ihardunbide eta guzti instituzionaldua dagoena, bere funtzionario edo *ministro eskudunak behar izaten ditu, doktrina irakasteko eta *erlijiozko publikoak egikaritzeko.

Eliza katolikoan bezain hertsiki eratuta ez bada ere, apaizgoa edo antzeko *ministeritzak dituzten beste kristau-Konfesioetan eta beste erlijioetan ere aurkitzen da nolabaiteko hierarkia, fededunen gain Jainkoagandik duten eskumena baieztatzen den neurrian. Hala nola, Eliza Ortodoxoan eta Anglikanoan; antzinako Egyptoko erlijioan, Greziakoan, *hinduismoan, *zoroastrismoan, *judaismoan, etab. Ik. Eliza Ortodoxoak; Eliza anglikanoa.

Batzutan beren eginkizun erlijiozkoa izan ohi dute ministroek beren lanbide osoa edo nagusia. Horrelakoetan bereziki, hierarkia osotzen dutenek benetako gorputz sozial

berezia eratzen dute, beren pribilegio eta guzti: hau da, *kleroa edo talde aukeratua, *laiko eta fededun arruntetatik berezia.

Erljio gehienetan *ordenazioa edo *sarbidenen-errito apartekoak egikaritzen dituzte funtzio hierarkikoa hartzeko. Herri batzutan, berriz, erlijiozko funtzioa halako funtzio zibilari lotuta egon ohi da: antzinako Erroman eta Grezian, esate baterako. Hierarkia sartzeko hezkuntza- edo prestakuntza-sistema luzea eta hautapen-sistema ongi arautua egon ohi dira.

Erljioetako "funtzionarien" biziera ere sarritan *araubide eta ohitura jakinen bidez mugatua egoten da: horrela, *abstinentzia jakin batzuk eskatu ohi zaizkie (*ezkongetzea, e.b.); biziera banakoan nahiz taldekoan beren erlijiozko urrats eta *otoitz bereziak eduki ohi dituzte; beren errito-eginkizunak betetzean, janzkera berezia eraman ohi dute gehienetan, eta sarritan beren eguneroko biziera arruntean ere bai. Ik. Jantzi sakratuak.

Kristau-Elizako hierarkiak hamabi *apostoluengan du bere jatorria; Kristogandik beragandik datorrela sinesten dute kristauak Eliz ministeritza eta horretarako eskumena, orokorki hartuta. Baina Elizaren lehen mendetan ezberdinki sortuz eta eratuz joan ziren ministeritza konkretuak eta horien egitekoak. 250. urtean Erromako Elizan hauek zeuden: *apezpikua, *presbiteroak, *diakonoak, *subdiakonoak, *akolitoak, *exortzista edo araolariak, *irakurleak eta atezainak. Ministeritza-banaketa hori zabaldu eta finkatu zen Eliza mendebaldar osora, non ordena nagusiak (lehen hirurak eta *sakramentutzat hartzen direnak) eta ordena txikiak bereizi bait zituzten.

Dena dela, ordenazio- edo sakramentu-mailan horrela banaturik badago ere hierarkia, Eliza Katolikoaren zuzenbidean --eta Ortodoxoaren ere bai-- mailaketa konplexuagoa dago ordena bakoitzean ere: Hierarkia osoaren buru aita santua da Eliza Katolikoan, *apezpiku-kolegioaren buru delako; gero datoz *patriarkak, *kardinaleak, *artzapezpikuak, *apezpikuak, *artzapezak, *apaizak, *diakonoak, etab.

Erromatar Eliza Katolikoan, beste inolako Elizatan eta erlijioetan baino nabarmenagoa eta finkoagoa da erakunde hierarkikoa, aita santuarengandik hasi eta beheereneko mailako ministroarengainokoa.

Piramidearen antzeko erakundea du Eliza Katolikoak: erpinean aita santua dago, baka-rik, eskumen goreneko duena; berak izendatzen ditu kardinaleak eta apezpikuak; hauek, apaizak eta diakonoak... Hala ere, gaur egun, lekuko Eliza partikularra eta oinarri-

ko kristau-elkartea Elizaren erakundearen oinarritzat hartuz eta kristau guztien apaizgoa baieztatuz, Eliz ministeritzen demokratizazioaren aldeko mugimendua bizkortu da.

Eliza erreformatuetatik sorturiko komunitateek ez dute benetako hierarkiarik, teologiaren arabera *fededunen eta Jainkoaren arteko *bitartekotza beteko lukeenik, ezagutzen ez dutelako. Baina badituzte beren *artzain, ministro eta predikulariak.

Ik. Kleroa; Ministeritza; Aita santua; Apezpikua; Apaiza; Diakonoa; Eliza partikularra; Oinarriko kristau-elkartea; Orde-naioa.

Paulo Agirrebaltzategi

Hierofania

Zer sakratua munduan agertzeari deritza hierofania. Hauxe nabarmendu behar da: funtsean sakratuaren iturri edo indar eragilearekin eta zer sakratuaren mundu barruko eraginkortasun hori norberak sumatzearekin loturik dagoela bereziki hierofania.

Hierofaniak gertatu dira eta gertatzen dira: beraz, munduan bada sakratuzkorik. Iraganean, hots, garai batetako leku eta kultura historiko batetan, gauzaren batean zer sakratua agertu bazen, hierofaniaz mintza gaitzke; baina gerta daiteke, gauza berak, sakratua izanik ere, beste garai eta kulturaren batean sakratuzkoaren mundu barruko eraginkortasuna nabarierazteko indar hierofanikorik ez edukitzea. *Sinbolo eragile eta biziaren orde, zeinu hila gertatzen da orduan, non tradizio hutsez bait du barnaturik bere zentzua. Hierofania benetakoa bolkan bizia bezalakoa da, bere laba atereaz jarraitzen duena.

1. Iturburua

Hierofaniaren sorburukoak edo iturburukoak, hori gertagarri bihurtzen duenak, izen ezberdinak hartzen ditu iraganeko eta gaur eguneko kultura ezberdinen arabera: hala nola, Jainkoa, *Kami (Japonian), *Mana (Polinesian), Izpiritu Handia (Prado-ko indioen artean), *Numenezkoa (Otto), Osoa, Anima Mundi, etab. Batzuk benetako izen propioak dira, beste batzuk izenlagun deskribatzaile hutsak.

*Absolutua bururatzeko eta izendatzeko era horietako bat bakarra ere gutxietsi gabe, denetan iturburu berbera dagoela esan beharra dago: hau da, kosmosa bizi erazten duen indarra, horri arima (=bizia) emango bailitzaion. Munduaz guztiz hara indikoa da iturburu hori: hau da, benetan benetako den "zer" hori ez da mundutarra, ez bait dago mugatzerik. Baina "zer" hori gure mundura

sartzen da, espazioan eta denboran, gauzatan eta lagunetan.

2. Gertaera eta xedea

Gizakiak ez du berak bilatzen hierofania; hori gertatu egiten zaio gizakiari. Gizakia ez da hierofaniari eragiteko gauza, baina bai hori hautemateko, aurrean jartzen zaionean. Xedeari dagokionez, berriz, hierofania ez da agertze-desagertze hutsa; hori hautematen duenarengan, berorren egoeran eta bizieran berrikuntza ekartzen du. *Jesukristogan agertzen dena ez da gizon hutsa, Jainko gizon egina baizik; cromlech edo *harrespila ez da harri-zirkulu hutsa, eta lekune santu hutsa; zerurantz begiratzeko eta Jainkoarekin komunikazioan sartzeko bidea ematen du. Zer sakratua eratzea, gizakia hartara zuzentzea, eta horren bizitzari helburua ematea da hierofaniaren xedea.

Ik. Agertaldia; Agerkundera; Sakramentua.

Daniel Metzger
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

Hierofantea

Greziako erlijioan apaiz nagusia, *misterioei, sinbolo sakratuei eta gurtzari buruz, bereziki misterio eleusiarrei buruz, *neofitoak eskolatzekeo kargua zuena.

Ik. Misterio eleusiarrek; Apaiz nagusia.

Hierogamia

Erljiokizun-mota, gizakien eta jainkoen arteko sexuzko harremana adierazten duena. Ugalkortasunaren kultuarekin du zerikusia batez ere.

Ik. Ugalkortasuna; Ugalkortasun-erritoak; Prostituzio sakratua.

Hieroglifikoa, idazkera

Klemente Alexandriakoaren garaitik (II. mendetik), Egiptoko erlijiozko idazteun antzinakoak idatzirik zeudeneko irudizko idazmodua adierazteko esakunea. Gerora horrelako idazkera guztiei eman diete izen bera: Hieroglifoa, alegia, eta idazkera hieroglifikoa.

